

Leire Bilbao/ Maite Mutuberria. *Piztipoemak*. Pamiela.

Anatomia poetikoa

Arrainak ditut gorputzean
igeri doaz nire zainetatik
gora eta behera
eztarritik urdailera
ura bainaiz neure osoan ura
oinetatik burura.

Bi zuhaitz ditut biriketan
urkia eta pagoa
arnasa oparitzen didate
sudurzulotik ahora
hostoak dantzan bertan eta
haizea
nire biriketako baso hezea.

Gerezi berezi bat dut bihotzean
zure ezpainetan zain
musu eman
handitu dadin
eta dastatu
lurra
nire bihotzeko gerezi-hezurra.

*Gorputzak dituen soinu txikiak behatu: taupadak, arnasa, pixaren soinua, purrutak...
Soinu horiek beste zerbaitekin alderatu eta haren ordeztu erabili. Gorputz soinuen
inbentario bat egin.

Sugearen sabela

Sugea sigi-saga zihoan kaletik
gosea sartu zitzaion bat-batean
eta muskerra zelakoan
galtzerdi berde bat zuen ahoratu,
baina ez zen ohartu galtzerdia zela
bi dioptriako betaurreko pareta irentsi arte
horrek ez zion tripa bete.

Sigi-saga narrasean
aurretik harrapatzen zuen guztia joan zen jaten
eta irentsi zituen irentsi
bost minuturo jotzen zuen mugikorra
aurretik pasa zitzaion andrearen takoi luzea
parkeko bankua eta ondoan zeukan monumentua
dirdirka zoroan zebilen farola
argi-faroletik gertu zegoen zuhaitza
bertatik jaitsi nahi ez zuen katua
semaforoan zain zegoen autoa
bertako gidari lodia honen aurreko autobusa
ikastolara bidean zihoazen ume koadrila
udaletxea, supermerkatua eta kiroldegiko igerilekua
kaleak zituen irentsi
herria osorik zuen irentsi eta egun horretatik aurrera
sugearen sabel barruan bizi dira
zerupean daudela
uste duten biztanleak.

*Sugearen ibilbidearen marrazki bat egin eta errezitatzen den bitartean antzeztu.

Han eta hemen, izenak biltzen

Hegan, saltoka eta saretik sarera a
biatu ziren herri batera
tximeleta, igela eta armiarma
eta bueltatu ziren bueltatu baziren
kalapitxia, tripi-trapua eta marasma.

Hegan, saltoka eta saretik sarera
irten ziren hurrengo herrira
kalapitxia, tripi-trapua eta marasma
eta bueltatu ziren bueltatu baziren
bitxilorea, ugaraxua eta aramua.

Hegan, saltoka eta amaraunetik amaraunera
joan ziren ondoko herrira hirurak batera
eta bueltatu ziren bueltatu baziren
sorgin-oiloa, xakela eta ainarba.

Hegan eta saltoka
martxan jarri ziren hurrengo herrira
Sorgin oiloa eta xakela
eta bueltatu ziren bueltatu baziren
mitxeleta eta txantxikua.

Martxan jarri zen hegaka
hegoak zabal-zabal
mitxeleta
eta alderik alde igaro zituen herriak eta herriak
zeharkatu zeruak eta zeruak

mitxirrikak,
jainkoiloak,
marisorginak,
atxabiliak,
txilipaitanak,
pinpilinpauxak...
Eta horrela bildu ziren bere hegoetan
hauts geruzak eta izen berriak!

*Poema osoa buruz ikasi: bertako aho-korapiloak azkar eta nahastu gabe esan. Ezetz ni baino azkarrago esan...